

Juan Cruz Lakasta

KAZETARIA

Letizia Bruni

Barka, internauta pornografia zaleok. Bilatzailean Letizia Bruni deitura saka-turik Italiako zinema pornoko izar dis-tiratsua irudi pizgarriak aurkitzea espero zenuten, eta hara non egin duzuen topo libidoari doakionez bromuroa bezain motelgarria den ene artikulu honekin. Titulua pentsatu dudanean ez nekien Letizia Bruni izeneko *porno stara* existitzen zenik. Azken unean, testua taxutzeko Interneten datu baten bila nenbilerarik jabetu naiz horretaz. Baina, halere, izenburuari eustea erabaki dut, zehar kalteak zehar kalte, Letizia Ortiz eta Carla Bruniri buruz idazteko aproposa iruditzen baitzait, baita –azken unean ezaguturiko kointzidentzia onomastiko horren karietara– haien arteko topaketaren kontura Madrilgo prentsan gailendu den kazetaritza-pornografiaz jarduteko ere. Esan bezala, barka, mi *sensi, sorry*. Milaka internauta pornografia zaleei azalpenak eman eta gero, segi dezadan aurrera argia.com-en zein **ARGIA**ren paperezko edizioaren ohiko jarraitzaileentzat. Kontua da zur eta lur utzi ninduela apirilaren 28ko *El País* egunkariaren azaleko irudiak. Carla Bruniren eta Letizia Ortizen ipurdiak, Nicolas Sarkozy eta haren emazteak Espainiara egindako bisita ofiziala ilustratzeko. Argazkian zehazki bi emakumeok Zarzuela jauregiko eskailerak igotzen ikus-



JOSU SANTESTEBAN

zitezkeen, tutu-soinekoak jantzita eta takoidun zapatekin, atzetik harturiko irudian. Nabarmenena, beraz, ipurdiak. Ipurdiak eta zolda. Zolda arrosa eta kazetaritza horia, ustez Espainian erreferentziakoa den kazetan, ustez aurrerakoia den berripaperean –ikusitakoak ikusita, sozialdemokrata bainoago matxista-leninista–. *El País*en ipurdia bistan. Eta bistan da paperezko prentsa krisian dela. Denok bezala, krisi ekonomikoan. Baina, horretaz gain, eredu krisian. Internetek irakurleak kentzen dizkio eta telebistak agenda markatzen. Eta telebistan irudia da garrantzitsuena. Soilik ikusgarria dena azaltzen da telebistan. Eta soilik telebistan azaltzen dena da albiste. Hala, egunkarietan ere irudia nagusi. Eta Sarkozy jada ez da agintari autoritario atzerakoia baizik eta Carla Bruni ederraren senarra. Eta Felipe printzea jada ez da monarkia bezalako erakunde artritiko eta antidemokratiko baten ordezkaria baizik eta Letizia printzesa dotorearen senarra. Eta *El País* ez da egunkari serioa baizik eta aleak saltze aldera edozer argazki ikusgarri azaleratzeko prest dagoen kazeta. Eta gero Cebrianek esanen du Interneteko kazetaritza ez dela serioa. Ez dakit zer bide segitu behar duen prentsa tradizionalak ataka estua gaintitu ahal izateko. Argi dudak bakarra, bidea ez dela hori. ■

« Nabarmenena ipurdiak. Eta zolda.

Zolda arrosa eta kazetaritza horia,

ustez Espainian erreferentziakoa

den kazetan, *El País*en, ustez

aurrerakoia den berripaperean



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Astebete urrun igaro ondoan, ez da erraza burua birko-katzen. Handik

nabilela hemengoa eta hemen hangoa ahantzi ezinik nabil. Ikusitakoa arrotz, ikusitakoa sailkatu eta ordenatu lanetan aski buruhauste, ordenagailua piztean izan dudana mezu zaparrada dut neke. Hirurehunetik gora. Gehienak ezezagunen gakoek pausatutakoak ireki ere egingo ez ditudan hanka. Berriemaile andana dabil sarean berea iragartzen, duen almazena arindu ezinik, lau sos nori kenduko ahaleginetan, bilaka. Kotxe saltzaileak nagusi, itolarrian pagotxatan igarri. Orain bi urteko pre-

Berriro etxean

ziotik, ni atzo etxetik bezain urrun. Beti dugu inguru haue-tan aski zaiguna bota eta behar ez duguna hartzeko joera,

hondar urtetako kirol maitagarri hori praktikatzeko gogoia. Etxeek ere badute arrakasta oraintxe. Atzo zorpetu, egun ezin aurre egin zorrari eta bihar ez etxe eta ez zor, bankua jabe. Saldoka eskaintzen ditu erdi prezioan zenbait. Berriz ere, aberatsenak aberatsago egin daitezen sistema ziklikoa martxan. Krisia deitzen diote. Lagunen eta ezagunen dozena mezuei klik eta gainerakoak ezabatu egin ditut publizitatea postontzitik zakarrontzira bezala, pagotxak gu bezalakoentzat zepoak direla jakitun. ■